



ABORIGINEK AURKEZTEN DAU:

Soinu Ekosistemak: zirrara irrazionala

soinu-topaguneak

Badirudi bizitzaren kantua aditzen pausatzeari utzi egin diogula

Ikusmenaren erabilpena eta irudien lengoaia nagusi diren mundu honetan, aditzera pausatzeak bizitza-erritmoaren aldaketa dakarkigu. Erritmo hau aldatzea eta aditzera pausatzea ezinbestekoa zaigu.

Soinuen eremuaren ikerketaren bitartez bizitza-alternatibak gure inguruan direla ohartarazi gaitezke, adibidez, natura ez dela soilik mendira joatea, baizik eta edonon dagoela, eta horretaz ohartzea besterik ez dugula, aditzera pausatuz.

Soinu ekosistematik parte hartzerakoan pertsonak bidaia bat egiten du giza-zirrara eta irrazionalitatearen bila. Bizitzaren kantuarekin topo egiteko gonbitea da, zarataren atzean ezkutatzeko den giza-paisaia, sortu dugun mundu honen zarataren atzeko bizitzaren kantua. Parte garen bizitza honen kantua. Gizakia bere horretan topatuko du.

Itxi begiak eta aditu. Proposatzen den hau ez da ikuskizun bat, bizipena baizik.

PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA:

Jolas honetan zenbait soinu-ekosistematan zehar ibilbide bat egingo dugu.

Ibilbideak 3 zati izango ditu:

- 1 Partehartzaileei egingo dugunaren azalpen laburra eman ostean, ibilbide laburra egingo dugu ingurutik begiak bendaz estalita; zenbait puntutan geldituko gara inolako interbentziorik gabeko giro-soinuak aditzera.
- 2 Egokitutako barne-espazioan sartu eta soinu-ekosistemen aditze-sesioa egingo dugu. Partehartzaileak eroso jarri eta aditzera prestatzen dira. Soinuek mezuak dakartzate, eguneroko bizitzarekiko lotuneak eta sentimenduak. Soinu-jolasekin eginiko konposaketa baten bitartez zirrarak ernetzen dira, partehartzaileak irudimenezko bizi-kontzientzia egoera batera garraiatuz.
- 3 Irteera ibilbidea mundua aditzera. Irteera zuzena kalera. Kanpoko argia sartzen da eta harantza goaz, gauza guztiek beren kolorea dute eta bizitzak bere kantua du. Peertsona bakoitzak bere erritmoa dauka ere.

Jolas-Arauak hauek dira:

-Aditzearen jolas honetan parte hartzeko begiak benda batez estaltzea proposatzen diegu partehartzaileei. Hala, entzumenean izango dugu arreta osoa, errealitatea pertzibitzeko orduan ikusmenak gure beste zentzumenak menperatzen ohi baititu. Ikusmenak erakutsi ohi digu "gauzak nolakoak diren". Orain bakar-bakarrik soinuen bitartez mundua nola pertzibitzen den behatzen saiatuko gara. Aditzera pausatuko gara, eta honek bizi-erritmo aldaketa suposatzen du. Erritmo hau aldatzea eta aditzera pausatzea ezinbestekoa da.

-Begiak bendarekin estaltzerik nahi ez duenak ez du zertan egin behar. Begiak itxita parte hartu daiteke bizipen honetan, baita begiak irekita ere. Edozein momentutan ireki ala itxi ditzazkegu begiak. Benda jarri ala kendu.

-Zenbait lagun izango dira begiak estalita dituztenei mugitzen laguntzeko. Bizipen berezia baita begiak itxita ibiltzea, beti ere beldurrik gabe ibiltzeko motiboak baditugu.

ELKAR AURKITZEKO GUNEAK:

Edozein espaziotan eskaini daiteke, baina akustika ona duten horiek hobetsiko ditugu, hala nola, zinemak, elizak, erakusketa aretoak, antzokiak edota naturan kokatutako espazioak.

Haur zein nagusientzako aproposak dira emanaldiak.

Emanaldi bakoitzeko 30 partehartzaile izango dira gehienez.

Emanaldi bakoitzaren iraupena: 45 minutu.

Egun berean 2 emanaldi egitea posible da, tartean 2 ordu utzita gutxienez.

Bizpahiru bolondres behar dira partehartzaileak alde batetik bestera begiak estalita higitzeko.